

## Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

## Tximinoen ejertzittoa



Joseph Stalinekin (ezkerrean) gizakiaren eta tximinoaren arteko hibridoa eskatu zion Ilya Ivanov zientzialariari 1927an. Izaki horiek gerlari paregabeak izango omen ziren. Baina tximinoen ejertzittoa fikzioan baino ez da sortu (goian, *The Planet Of The Apes* filmeko irudia).

**GRAZ (AUSTRIA), 1910.** Ilya Ivanov zientzialariak gizakien eta tximinoen arteko hibridoak sortu zitezkeela esan zuen lehen aldiz, Munduko Zoologia Kongresuan. Baina hamalau urte zain egongo zen, Parisko Pasteur Institutuak esandakoa frogatzeko aukera eman zion arte. Garai hartan, egungo manipulazio genetikorako teknikak ezezagunak ziren. Hortaz, 1926an Gineara joan zen eta han hiru txinpan-tze eme giza espermaz intseminatu zituen. Ez zuen emaitza positiborik lortu, eta Frantziako Gobernuak ez zion baimenik eman beste espermentu bat gauzatzeko, hots, emakumezkoak tximino espermaz intseminatzeke.

1927an Sobietar Batasunera itzuli zen eta bertan Stalinekin ez zion inolako oztupo moralik ipini. Are gehiago, pertsonalki hitz egin zuen Ivanovekin eta eskaera bitxia egin zion: gizaki mota berri bat nahi zuen, garaiezin, minik sentituko ez zuena, eta edozein elikadura motara moldatuko zena. Tximinoak eta gizakiak bat eginda lortuko omen zuen hori. Sobietar Batasunaren egoera ekonomikoa ez zen oparoegia, baina sobietarrek armada indartsua behar

zuten. Ez zeukaten alemaniarren prestakuntzarik eta zaila zen AEBetako soldadu kopurua berdintzea. Stalinekin gogoan zeukan hibridoa gizakien gainetik egongo zen ahalmen fisikoei dagokienez. Aldiz, mentalki, armak erabili eta borrokatzeke ahalmena izatea nahikoa zen. Bide batez, ez zuten agindurik zalantzan jarriko, eta gobernuaren esanak eztaba-datzeko gai ez ziren izango.

Georgiako Sukhumi hirian ikerketa zentroa jarri zuten abian, zientzia-fikziozko asmoak egia bihurtzeko. Emakumezko "boluntarioak" topatzeko arazorik ez zuten izan. Baina bost emakume tximino-espermaz intseminatzeke erabakia hartuta zeukatenean, 1929an, Sukhumin bizirik geratzen zen azken orangutana hil egin zen.


Urtebete geroago Ivanov atxilotu zuten, Stalinen erregimena kritikatzeko. Bi urte geroago hil zen, erbesteetan. Ivanoven heriotza-oharra Pavlovek idatzi zuen.

Stalinekin ez zuten tximinoen ejertzitoaren ametsa gauzatu ahal izan, baina behintzat Pavloven txakurrak gerran erabiltzeko aukera izan zuen urte batzuk geroago. ■

## ARRASTOAK

## SAGUNTOKO ANTZOKIA

duela hogeitazero urte bezala uzteko epaia eman du Espainiako Auzitegi Gorenak. 90eko hamarkadaren hasieran zaharberritze lan sakonak egin zituzten erromatar arrastoe-tan. Marmolezko harmaila erantsi zioten eta ia eszenatoki osoa berritu zuten. Garai hartan PSOE zegoen agintean, bai Saguntoko Udalean, baita Valentziako Generalitatean ere. Orduko oposizioak berritze obrak legez kanpokoak zirela esan zuen, eta hamazazpi urte iraun duen auzia abiatu zen. Egun PPK agintzen du bietan, baina lehen ez bezala, berritze lanak gordetzearen alde ageri da orain. Epaia betetzean, antzokiak zerbitzu kultural berbera eskainiko al du? Eta lanek oraindik eta kalte handiagoa egingo al diete jatorrizko arrastoei? Liskar politiko hutsa bihurtu den honek ez die galdera horiei garbi erantzuten.



Goian, Saguntoko erromatar antzokiak gaur egun duen itxura. Behean, berrikuntzen aurreko arrastoak. Epaia dio antzokiak beheko argazkiaren itxura hartu behar duela berriro.